

LABek Hezkuntza saileko Heziketa Bereziko hezitzaileen baliabideen esleipen irizpideen negoziazio eza salatu du

LAB sindikatuak hainbatetan salatu du Hezkuntza Sailaren Aniztasun eta inklusio Departamentuak Heziketa Bereziko baliabideen inguruko negoziazioan erakutsitako borondate falta eta aldebakartasuna. Horregatik, Heziketa Bereziko hezkuntza laguntzako espezialistek egoera hau publikoki salatu dute Eibarren.

2024ko abenduan LABek, Heziketa Bereziko II. Lan Hitzarmena sinatu zuen. Hitzarmen horretan argi jasota dago hainbat gai alde sozialarekin negoziatu behar direla; tartean baliabideak esleitzeko irizpideak.

Eskola publikoak hain beharrezkoak dituen Fisioterapeutak, Gizarte-langileak, Transkriptorea-Materialaren egokitzzaileak, Hezkuntza laguntzako espezialistak, Zeinu hizkuntzako interpreteak eta Okupazio terapeutaz ari gara. Baliabideak esleitzeko irizpideetan negoziatu behar dira, besteak beste, ratioak, arreta-intentsitateak eta ikastetxe bakoitzari dagozkion langile kopuruak. Hau da, irizpide horien arabera erabakitzen da zentro bakoitzaren beharrezko arabera zenbat langile egongo diren atxikituta. Gainera kolektiboak dituen jardun erdiko lanpostuak osora pasatzeko plana aldarrikatu dute. Horregatik, irizpide horiek egoki zehaztuta eta adostuta egotea ezinbestekoa da langileen atxikipena, lekualdatze prozesuak, LEPa eta etorriko diren gainerako prozedurak berme guztiekin antolatu eta garatzeko, baita ere heziketa bereziko ikasleei bere beharretara egokituko den arreta emateko baliabide pertsonalak.

Hala ere, administrazioak gai hau itxiztat eman du eta ikasturte honetan zehar aldebakarrez hartu ditu erabakiak, LABek egindako ekarpen, proposamen zehatz eta landuak kontuan hartu gabe eta inongo azalpenik eman gabe. Jarrera horrek Lan Hitzarmenaren garapena urratzen du, baita negoziazio kolektiborako oinarritzko eskubidea ere.

LABek behin eta berriz helarazi ditu bere kezka eta egonezina, bai idatziz bai negoziazio mahaietan. Azken bileretan gaiari berriz heltzeko asmoa adierazi bada ere, gaur gaurkoz ez da benetako negoziatorik eman.

Egoera hau bereziki larria da, esan bezala, baliabideen inguruko akordioak lehentasunezkoak baitira premia bereziak dituzten ikasleei hezkuntza arreta egokia emateko eta baita ere lan arloari lotutako prozesu guztiak berme osoz garatzeko, baita etorkizuneko LEP deialdiak behar bezala gauzatzeko ere.

Horregatik guztiagatik, LABek, Heziketa Bereziko sektoreko langileekin batera egoera hau publikoki salatu du, zuzenean eragiten duten aldebakarreko erabakiak. Era berean, administrazioari benetako negoziatioari berehala ekin diezaion exijitu dio. Heziketa Bereziko langileon lan baldintzak eta ikasleen arreta ezin dira inposizioen eta aldebakarreko erabakien menpe egon.

Negoizazio hau bideratu ezean mobilizazioa baino ez zaiela geratuko argi utzi dute.